

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Landare genero zaharrena

Gure planetan bizirik dagoen landare genero zaharrena omen da azeri-buztanarena, *Equisetum* generoa. Beste landareak sendatzeko bere ura nola erabili ez dut idatzi zaharra txoko honetantxe. Hantxe nioen milioika urtetako historia duen familia bateko azken partaide izan eta itxura ere prehistoriko samarra nola duen.

Orain Argentinatik dator berria, Patagonia hegoaldeko Santa Cruz lurraldeko Macizo del Deseadotik. Han, Galesko Cardiffeko Unibertsitateko Alan Channing geobiologoa buru duen taldeak marka berria jarri dio azeri-buztanari. Orain arte genero hau duela 65 milioi urte sortua zela uste bazen ere, han topatu berri dituzten fosil batzuei esker askoz zaharragoak direla jakin ahal izan da: 150 milioi urte inguru. Goi Jurasiko garaikoa, landaretzak gaurkoarekin alde ikaragarria zuen garaikoa. Egundo "benetako" loreak dituzten angiospermoak azaldu gabe, koniferoak, ginkgoak eta cycadaceoak nagusi ziren.

Gaur egun beste landareak sendotu eta sendatzeko erabiltzen bada ere, azeri-buztanak badu beste izen xeble bat. Garaitako erabilera bat gogora ekartzen duen izena: eztainu-belarra. Metal horrekin egindako ontziak garbitzeko aproposa delako jarria omen duena.



LUC VIATOUR-CC BY SA

Gonapeko bihotza

ASIA TXIKIKO Kurdistan omen da *Tulipa sp.* tuliparen genetikaren biltegia, bere jatorriaren bihotza, idi-bihotzaren bihotza. Nork jarri ote zion lore honi idi-bihotz izena? Noizkoa ote? Aspaldikoa izatearen zantzurik ez dut topatu. Izen honi berri samarra ote denaren usaina aditzen diot. Nondik nora sortua denaren argibidean inolako aztarnarik izanez gero, gustura hartuko nuke. Ireki gabea dagoenean, loreak duen itxura eta baita lore deigarri hori ematen duen lurpeko aietak edo erraboilak duen forma ote dira arrastoak? Bihotz baten eitearen antza izan dezakete... Tankera modutsuko forma duen tomate batek izen bera du, gaztelera *corazón de buey* esaten zaiona. Ea bada idi-bihotza izena nork asmatu zuen aurkitzen dugun. Bihotz forma bale, baina zergatik idiarena? Behiarena edo bigarena ez al da egokia? Eta ahardiarena? Izena jarri zuena bera ere idietakoa ote da bada? Mordoi-lo honen korapiloa askatzen laguntzen didanari etxeko bukoi beltzeko pare bat botila sagardo emango nioke gustura...

Garbi esateko moduan igarri ez, baina kontu honek gona usaina, gona beltz usaina, sotana usaina ba ote duen susmo dut... Lepoko zuri, ostiapeko patena, konfesatoki urdinduen lizuna, estola eta eraztun handien artean ibili izan da euskalduon botanika asuntua: Jose María de Lakoizketa (1831-1889) narbartearra eta Guillermo Larrañaga Azpiazu (1905-1978) azkoitiarra dira begi-bistako adibideak. *Lardizabalaceae* landare familia osoari izena emateko ohorea izan zuen Miguel de Lardizabal y Uribe (Tlaxcala 1744-Bergara 1824) politikaria ere teologia ikasketak egina zen, harrapazank. Bertaxeagotik suertatu ez, egokitu zaidana, lehengo mendearen bukaeran, alor gehienetan antzera, zientzian eta botanikan ere seminario kirats izugarria ibilia da. ARGIA ale oso bat txikitxo litzateke aurrekoena bezala soilik izenak aipatzeko ere. Duela urte gutxiko itxuragabeko keru hori leuntzen, mehetzen, saretzen ari da, urardotzen. Jainkoari eskerrak, Eolo zazpi haizeen jainkoari eskerrak!

Babeslea: Alkartasuna



EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA
KOKAPEN BERRIA USURBILEN
 Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

